

Aspertzeko aitzakiarik ez

Altzako udal topaleku eta kultur etxeetan ekintza ugari antolatu da apirilera-ko. Denetarik izango dugu, tortila txapelketatik hasi eta musika kontzertuetaraino,

Casarezen izango diren «Pakearen aldeko IV. ihardunaldiak» ahaztu gabe.

Esan dezagun, azkenik, Altzako REM institutuko gazteek, Ignacio García May-

ren «Operación ópera» antzeztuko dutela apirilaren 17an. Ez dira, baina, auzoan arituko, Antiguako Lugaritz kultur etxean baizik. 10.30etatik aurrera jardungo dute.

Gazteentzako ekintzak

Hilak 11: Laudano, Asalto eta Estado Inperfecto taldeen kontzertua. Altzako frontoian, 22.00etan.

Hilak 12: Patata tortila txapelketa. Gaztelekuan, 11.00etan.

Pakearen Aldeko IV. Ihardunaldiak

Hilak 14: Euskal Herriko gatazkaz solasaldia. Kultur etxean, 19.30etan.

Hilak 15: Mariano Ferrer kazetariaren hitzaldia. Kultur etxean, 19.30etan.

Hilak 17: «Sin verdad y sin justicia, ¿es posible la paz?». Kultur etxean, 19.30etan.

Hilak 18: Kristau jokaerei buruzko hitzaldia. Kultur etxean, 19.30etan.

IRU TXULO 11. 04. 97